

**Bilbo'n, "Escuela de Artes y Oficios" deritxon
ikasguan, 1920 'ko Lotazila'ren 28'an, ga-
beko 7'an.**

Batzañ-agiri-berezia egin zan.

Maipuruan Azkue, Kanpion, Eleizalde, Olabide, Lande, Intzagarai, Landeñetxe, Intza, Lakonbe euskaltzainak eta Menendez Pidal, Navarro Tomás, Americo Castro, Apraiz (Angel); entzuleen artean Oleaga, Lekuona, Manterola, Belaustegigoitia eta Apraiz (Odon) urgazleak.

Batzaldi onen gaya, Altube jaunaren euskaltzain-sañera izan zan eta onetako gertaldietan oi danez sañ-itzaldia beragandik entzun genduan. Ondorean Euskaltzainburuak bere erantzupen - itzaldia irakufi eban eta lagungaya Euskaltzain autorturik ezautailua ezari ta eskua estutu eutsan.

**Bilbo'n, Euskaltzaindia'ren bein-beineko etxean,
1920'ko Lotazila'ren 29'an.**

Aulkietan, Azkue, Kanpion, Eleizalde, Olabide, Lande, Intzagarai, Landeñetxe, Altube, Intza eta Lakonbe euskaltzainak eta Lekuona, Apraiz, Manterola ta Belaustegigoitia urgazleak.

Ona emen artu zirean erabagiak:

1. Azpañengo Misionisten buruzagiak euskal-ikastea soñtzeko laguntasuna eskatuaz egin eban ezkutitzari garaiz erantzun jakola eta, ikusirik iñolako erantzumenik eztala artu, ile bi bañu bertan izango

doguzan batzaréetan asmo órén bañiak jakitea erabagi zan.

2. Azken-batzaréetan erabagi zanez Kanpion eta Intza jaunak Iruñako Gotzain ospetsuari Euskaltzaindiaren izenean eskabide-idazki bat eskuetan dabela, ikustaldia egin dautse. Abegi onez entzun ondorean eskabide guztiak ontzat artu ebazan eta len-bai-len beteteko asmo benetakoa erakutsi ei-eban. Euskaltzaindiak, bañi oneik pozañen entzunik, Gotzain jaun oni eskerak erakutsiaz idazkia zuzentzea erabagi eban.

3. Iruñako Seminarioan sórtuko dan euskal-irakastea bere gain artuko dauan Irakaslaria euskalari jakintsua izatea beařekoa dala ta órétarako dirulaguntasunik beař bada 1.500 laurleko emotea erabagi zan.

4. Iruñako Gotzain-Agerkarian agertzen direan Kristau-ikasteak euskeratzeko arloa A. Intzak eta Goñi jaunak artu eyela.

5. *Patronato* deritxon ikasguko zefenda, A. Intzak, Urabayen jaunagandik lortu eyala.

6. Gazteizko *Heraldo Alavés* deritxon egunero-koak euskal-idazki bat, astero, argitaratuko dauala. Geyagorik, langileak urí daukazalako, ezin eskiñi daikeala.

7. Bayonako Gotzain jaunari, beste euskal-Seminarioetan bezela angoan bere euskal-irakastea sórtzea egoki litzakeala-ta eskabide ori egiñaz idazki bat zuzentzea.

8. Lapurdiko euskalki-ikastaroa, alde aretako irakasleren bat eskuetan izan ezkerro, Bilbon emotea ontzat artu zan.

9. Schuchardt euskalari ospetsuari asmotan daukazan euskal-lanak argitaratzeko laguntza eskeiñi. Beroni Euskerearen batasunaz bere eretxia eskatu.

10. Bizkai-Aldundiaren Mozkin-Kutxarako itzak euskeratzeko Azkue, Eleizalde eta Eguskitza izentau zirean.

11. Euskaltzainen ezautailuak zenbatu, gero bakoxtari adinka eta Euskaltzaindian saftu zirean kirian emoteko.

12. Victor Collins gutun-saltzaileari eskerak erakutsi Luciano Bonaparte'ren idaztiak Euskaltzaindian binaka bialdu-aren, bata utsean (uririk) emon dauksalako.

13. Egunerokoetan Euskaltzaindiaren izenean agertzen direan lankideen idazkirik onenak, urte-amayeran batera argitaratu.

14. Euskaltzaindiaren bein-beineko euskalkia (diploma ta agerkaietan) Giputza izatea.

15. Gaubeka'tar Bifor irarlea gogoan izan *Cultura Vasca*-k saritu dauzan idaztiak argitaratzean.

16. *Cultura Vasca*-ri dagokiozan lan guztietan, Euskaltzaindiaren onespenez, lendik oretarako izentautau dagoan Barzordeari eskubide osoa emon.

17. Euskerearen batasunaz aurkeztu zirean lanen laburpenak euskaltzain guztiai bialdu.

18. A. Intzaren euskaltzain - sañera Elizondon, Urtañilaren 27-an izan dedila.

19. Iztegia atontzeko izentautako Batzoñdeak, batzaldurik, auñerako daukazan asmoak auñkeztu daizala.

20. Henry Gavel - ek, Toulouseko Goikasguan asiera emongo dautsan ikastarora norbait bialdu al izateko, Eusko-Ikaskuntzaren Batzoñde-Egintzariari iru ñlebeteko bizi-sariak eskatu.

**Elizondo'n, Udaletzeko areto nagusian, 1921
ko ñlbeltza'ren 27'an, goizeko 10'an.**

Alde auñetik iragañitako Batzañaldia, Intza - tar Damaso aita Euskaltzaindian sañ erasteko, Elizondo-ko Udaletxean, gañ egin da. Asierako otoitz ostean, Euskaltzainburu Azkue yauna maipuru zalarik, bere aldamenaz Elizondo bertako Udalburua, alkitan ixiri ziran Olabide, Landeñetxe, Eguskitza, Intzagarai, euskaltzañak, Intza ta Lakonbe, aukeratuak, ta Aita Arigarai, Arburua ta Etxepare uñgazleak.

Azkue yaunak, gela-nagusian zeuden napañarañi agur esiitsu bat egin ziyen, adieraziyaz gañera, zeñtarako zan batzañaldia, ta ondoren yañki zan Intza'tar Damaso yauna bere sañerako itzaldia esatera. Gogoz eta arñduraz entzun zitzyon, eder ta gain-gañeko itzaldia zekañen-da, aitañuaz Napañoan euskerak dar-abiltzkiñ bereizpenak.

Itzaldi onitxe, Aita Olabidek beste batez erantzun